

AHAL DAUANAK BAINO NAHI DAUANAK GEHIAGO

DOINUA: "Uso zuria"

1

Jaungoikoaren antzeko,
nor gizonaren pareko?
Gizon gehienok gagoz oraindik
geure maila emoteko;
Anai-arrebok, zer ezin dogu
Jainkoa bada tarteko?

2

Ezinak bekar ekina,
ekinak dakar egina.
Gaur, bihar, etzi, norberak gogor
egin behar ahalegina,
uste genduan baino gehiago
jaso baietz etekina.

3

Bizkorrak atseginetan
nekezak nekeminetan.
Eskuan baino indar gehiago
jartzen dogu mihingainetan,
hamabi maila baino gehiago
ei dagoz ahaleginetan.



4

Izan bihotz ta kemena,
oraindik ez da azkena.
Geuk uste dogun baino gehiago
da guk daukagun ahalmena;
bizi dan batek, Jainkoa lagun,
beti dau itxaropena.

5

Ez dakit zer dan porrota,
Jauna gurekin dago-ta.
Gure ametsak huts emon arren,
ez naz sentitzen lur jota,
ez daigun ahaztu gure azkena
ez dala gero Golgota.

6

Guk erein daigun hazia,
Jaunarena da grazia.
Guk ahal doguna eginda gero
hartu askon arnasia:
bere orduan emongo deusku
Jainkoak irabazia.

7

Ahalegin danak ahalegin,
neuk bakarrik, Jauna, ezin!
Zeuk sortutako umea naz ta
ezin deustazu huts egin:
Dana ahal dogu, hartu ezkerro,
ondo biok alkarrekin.

A. Martzel